

Bestelako lankidetza

Euskara-irakasleak badu nortasun... digitalik?

*Agurne Aizpitarte eta Natxo Guillén**

1. Sarrera

Hasi baino lehen proposamen bat egin nahi dizuegu. Inoiz *googleatu* dituzue zuen izen-abizenak? Inoiz idatzi duzue Googlen zuen izena eta ikusi zer emaitza ateratzen den? Ba, artikulua irakurtzen jarraitu baino lehen, egin frogatxo hori, mesedez. Ikusi hor agertzen den informazioa, eta aztertu zuetaz esaten dena, idatzi gustuko duzuen eta gustuko ez duzuen. Artikuluaren bukaeran, berriro ekarriko dugu gogora, eta hausnarketatxo bat eskatuko dizuegu.

Galdera batekin hasi nahi dugu; hain zuzen, izenburuan dagoena: Euskara-irakasleak badu nortasun digitalik? Eta eduki beharko luke?

Egia esan, guk ez daukagu lehendabiziko galderaren erantzuna. Euskara-irakasle asko dago, eta guztiak ez dabilta une berean parte hartzen sare sozialetan. Baina baieztapen bat egin dezakegu: ia irakasle gehienok baliatu dugu Internet gure bizitzaren arlo profesionalean edo pribatuan, ekin-tzaren bat egiteko: dela Google edo Wikipedian bilaketaren bat egitea, dela Interneteko posta elektronikoak (Gmail, Outlook, Yahoo...) erabiltzea, dela blogak edo egunkari digitalak irakurtzea, dela smartphone-en mezularitzak (WhatsApp, Line, Telegram...) erabiltzea edo dela sare sozialetan (Face-

* a-aizpitarte@habe.eus
n-guillen@habe.eus

book, Twitter, YouTube, LinkedIn, Instagram...) parte hartzea. Horiek guztiak dira gaur egun barra-barra darabiltzagun hitzak.

Bigarren galdera: Eta eduki beharko luke nortasun digitalik? Argibide batzuk ematen saiatuko gara, argi utzita norberak hartu behar duela gurdi horretara igotzeko edo pasatzen uzteko erabakia.

Goazen harira, nork ez du gaur egun lehen aipatutako gune horietan ezertxo ere egin? Nork ez du sarrerarik erosi, erosketarik egin edota bidaiaren bat antolatu, Internet erabiliz? Ba, hori egiten dugun bakoitzean gure nortasunaren zertzelada bat margotzen ari gara, eta zertzelada hori hortxe gertatzen da, zertzeladaz zertzelada gure autorretratua definitu, osatu arte.

2. Web 1.0tik Web3.0ra

Gaur egun gertatzen ari dena ulertzeko, nahitaezkoa da begiradatxo bat botatzea Sarearen eboluzioari. *World Wide Web* (WWW) jaio zenetik Web 2.0ra doan garaia Web 1.0 deitzen zaio. Web 1.0ren ezaugarriak honakoak izan ziren: web estatikoa zen, dokumentu itxiak eta eguneratzen ez zirenak sarreratzen ziren, eta irakurri besterik ezin zen egin, interakziorik gabe, ez baitzegoen iruzkinik edo erantzunik jartzeko aukerarik. Web 1.0ren eskema oso finkoa eta simplea zen: web-masterra zen arduraduna, berak bakarrik hauta zezakeen edukia eta irakurleak ziren erabiltzaileak.

Web 2.0ren jaiotzarekin hasi zen interakzioaren garaia. Ezaugarriak: soziala, parte-hartzailea, zabala eta oso kolaboratzailea izango da, eta, oso garrantzitsua dena, multimedia. Hemendik aurrera, erabiltzaileak ekoizle-konsumitzaileak izango dira. Benetako iraultza informazio, komunikazio eta hezkuntzaren munduan gertatuko da.

Web 3.0ren alderik nabarmenena mugikortasunaren munduan sartzea izan da, ordenagailuak utzi dio leku finko batean egoteari, eta, egun, tabletak erabiltzen dira, eta, batez ere, smartphoneak, egungo ordenagailuak.

Hiru garai horiek izan dute isla hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan. Web 2.0ren garaian, batez ere, aldaketa nabarmenak bizi izan ditu gure munduak, euskararen ikaskuntza-irakaskuntzarenak. Moodle plataforma itxia erabat integratu da gure egunerokotasunean eta Edmodo bezalako beste plataforma batzuk ere hasi dira sartzen. Posta elektronikoa baliatzen dugu lanak bideratzeko. Blogak eta wikiak sarri erabiltzen ditugu, ikasleekin elkarlana (lan kolaboratiboa) sustatzeko. Googlek eskaintzen dituen aukerak gero eta gehiago erabiltzen dira. Gure ikastaldeetan WhatsApp-taldeak zabaltzen ditugu, eta ez ikasleekin bakarrik, gure artean ere prestakuntzarako tresna baliotsuak bilakatu dira.

3. Internetekiko jarrerak: bisitari eta egoiliarak

Marc Prensky-k (2001) "natibo digitala" eta "etorkin digitala" kontzeptuak asmatu zituen. Etorkinak dira teknologia digitalera helduaroan ailegatu direnak, eta natiboak, berriz, Internet zabaldu ondoren jaiotakoak. Beraz, adi-

naren araberako sailkapena dugu. Sinplea da atzean dagoen ideia: zenbat eta gazteagoak izan erabiltzaileak, orduan eta teknologia digitalarekiko ezagutza eta trebezia handiagoa izango dute. Zenbat eta zaharragoak erabiltzaileak, orduan eta traketsagoak eta zailagoak teknologia digitalarekiko harremanak. Dagoeneko, urte asko pasa dira Internet zabaldu zela, eta sailkapena berritu beharra dago bestelako irudi edo metaforekin. Besteak beste, erabiltzaileek Internetekiko duten atxikimendua eta jarrera kontuan izanda, “bisitari” eta “egoiliar” hitzekin definitu zituzten White-k eta Le Cornu-k (2011); alegia, sailkapenerako trebetasun teknologikoari edo adinari erreparatu beharrean, fokua aldatu, eta kulturari eta motibazioari erreparatu zieten.

Continuum-a planteatu zuten, eta muturretan bisitari eta egoiliarak, horrela deskribatuta: bisitariak beraien helburuak lortzeko sartzen dira Internetera. Pribatutasuna eta intimitatea oso garrantzitsuak dira beraientzat, eta bakarka aritzen dira gehienetan. Saiatzen dira arrastorik ez uzten. Egoiliarrentzat, ordea, gune soziala da Internet. Oso inportantea da beste erabiltzaileekiko interakzioa. Ikusgai dago egiten duten guztia. Sarea uzten dutenean ere, beraien identitatearen arrastoak Interneten uzten dituzte. Sarean bizi dira. *Continuum*-ean, faktore asko eta desberdinen arabera, egoiliaragoak izan gaitezke edo bisitariagoak. Beste modu batean esanda, gure nortasuna analogikoagoa edo digitalagoa izango da.

4. Nortasun analogikoa eta digitala

Gure identitatea modu nahasian eta konplexuan dago osatuta. Horrela defini daiteke nortasun digitala:

nik argitaratzen dudana + partekatzen dudana + informazioa + niri buruz dagoen informazioa = identitate digitala.

Honako hau esan zuen Alonsok (2011) norberaren nortasun digitalaren kudeaketak duen garrantziaz: “Dedicar esfuerzo a construir tu propia identidad digital ya no es opcional. Es un acto de pura responsabilidad”. Zergatik den hain garrantzitsua azalduko dugu. Interneten informazio guztia azkarrago eta gehiago zabaltzen da, eta, guk geuk ez baditugu igo edukiak, ia ezinezkoa da Internetetik kentzea. Interneten egiten dugun guztiak uzten du arrastoa, eta horrek lagunduko du gure identitatea osatzen. Guk geure buruari buruz ematen ez dugun informazioa beste batzuek emango dute eta kudeatuko. Honengatik guztiagatik da hain garrantzitsua norberaren identitate digitala norberak kudeatzea, nork bere nortasuna osa dezan, besteen esku utzi gabe.

Interesgarria da norberari buruz argitaratzen denaren berri izatea. Horrela, behar izanez gero, ezabatzeko eska diezaiokegu egileari. Ezer baino lehen, datu pertsonalak babestu behar dira, eta horretarako beharrezkoak diren iragazkiak jarri.

Zaindu egin behar dugu gure identitate digitala. Sare sozialetan, informazio pertsonal ugari izaten dugu, eta kontu handiz ibili beharra dago. Bi dira gehien gertatzen diren arazoak:

1. Identitate-lapurreta. Gure pasahitza lapurtuta, baten batek gure kontuaren kontrola har dezake eta gure izenean hainbat eduki argitaratu.
2. Pertsona ordezte. Gure datuak eta argazkiak erabiliz, gu ordeztu, eta gu izango bagina bezala aritu.

Segurtasuna bermatzeko bitarteko ugari dago, eta komeni da ezer argitaratu aurretik ezagutzea.

Nortasun pertsonala eta kolektiboa ezin dira banandu. Vigotsky (1981) zioen taldean, gizartean eraikitzen direla pentsamendua, hizkuntza eta identitatea. Egun, sare sozialetan gertatzen da hau guztia, zalantzarik gabe. Hau dela eta, bizitzaren arlo pribatua eta publikoa lehen baino nahasiago daude.

5. Pribatutasuna eta publikotasuna

Aspaldi honetan, lausotu egin da arlo pribatuaren eta publikoaren arteko muga. Interneteko erabiltzaile asko dago interesatua sare sozialetan, eta badago bere bizitzan gertatzen den guztia argitaratzen duena sare sozialetan. Intimitatea kanporatu, eta etengabe ezagutzera emateari *extimitatea* deitzen zaio. Erabiltzaile hauek jarrera egoiliarra dute. Lehen aipatutako *continuum*-aren mutur batean daude. Beste muturrean bere intimitatea gorde nahi dutenak. Intimitearen kulturatik extimitearen kulturara pasatzen ari gara.

Hausnarketa txiki bat egingo dugu pribatutasunaren gainean eta Interneten argitaratzen diren edukien kontrola dela eta. Aldakorrak dira gure nortasuna eta bizipenak, baina Interneten hirugarren batek guri buruz argitaratzen duena ez dago gure kontrolpean, eta aldaezina izango da guretzat. Gainera, argitaratzen dena iraupen luzekoa edo mugagabea izango da. Honen arazo ugari sortu ditu. Duela gutxi, herritar batek auzitara eraman zuen Google, berari buruzko informazioa kendu zezan eta Interneten ahaztua izateko eskubidea aldarrikatzeko helburuarekin. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak herritarraren alde ebatzi zuen. Dena dela, zenbait kasutan, Interneteko edukien iraunkortasunak eta gure kontrol faltak beldurtu edota haserretu egiten gaitu. Horregatik, zerbait argitaratu aurretik, irakurrita izan beharko ditugu erabiliko ditugun aplikazioen pribatutasun-politikak eta gure profila konfiguratuta eduki, gure beharrak betetzeko moduan.

6. Nortasun pertsonala eta profesionala

Lehen nortasun pertsonala eta profesionala erabat banatutako arloak ziren. Gaur egun, nahasiago daude pertsonaren arlo desberdinak. Bestalde, arlo pribatua eta pertsonala ez dira gauza bera. Pribatua lotuago dago norberaren datuekin: kontu korrontearen zenbakiarekin, postaren helbidearekin eta

abarrekin. Pertsonala, berriz, lotuago dago gustuekin eta aisialdiarekin. Lehen, erabiltzaileek kontu bat edo sare sozial bat arlo profesionalerako erabiltzen zuten eta beste bat pertsonalerako. Adibidez, LinkedIn lan-esparrurako eta Facebook arlo pertsonalerako. Arlo pribatua eta publikoa oso bereizita zeuden. Publikoaren barruan, beste batzuen artean, profesionala dago. Sarritan, gure nortasun digitalaren barruan, profil desberdin asko ditugu, izena eman dugun leku bakoitzeko bat, eta honek sakabanaketa ikaragarria dakarkigu. Sarean dugun profilak bakarrera ekartzeko zerbitzuak daude, eta horietako erabiliena *about.me*¹ da. Hemen zure “*txartel digitala*” sortuko duzu. Erregistroa egin, argazkia igo, aurkezpen-testu bat idatzi. Horrela, zuk kudeatzen dituzun blogak eta sare sozialak estekatu, eta denetan *about me*-ko profila agertuko da. Profila osatua eta eguneratuta baldin badugu, idazten dugunak fidagarritasun handiagoa izango du.

**7. Zer da NIA?
Zeintzuk dira
bere ezaugarriak
eta zertarako
erabili?**

NIA, norberaren ikas-alorra, ingelesez PLE (*Personal learning environment*), nortasun pertsonala eta profesionalaren garapenerako norberaren ikaskuntzarako alorra edo ingurunea da. Baina nolako ikaskuntza? Etengabe-ko ikaskuntza eta autonomia. “Autonomo” hitza erabiltzen dugunean ez dugu inola ere esan nahi bakarkakoa. NIA, proiektuak eta lanak beste kide batzuekin eta modu kolaboratiboan garatzen dira. Kideen arteko harremanak berdin artekoak dira, eta, batzuetan, adituaren rola eta, beste batzuetan, ikaslearen rola hartuko dute, gai, trebezia eta beharren arabera aldatuz.

NIA bera aldakorra da, ezinbestez, eta moldatuz joango da gure bizitzan zehar. Norbait ikasle-garaitik profesionala izatera pasatzen denean ere, oso beharrezkoa da NIA izatea, zeren eta gaur egun edozein profesionalak derrigorrean jarraitu behar baitu ikasten bere lanean. Internet da lanean ari den bitartean ikasteko modurik hoberena, malgutasuna eta askatasuna ematen baitigu, eta horretarako, gainera, Interneten dugu NIA garatzeko behar dugun guztia: eguneratutako informazioa, edukiak kudeatzeko behar dugun tresneria eta kideekin harremanak izateko eta informazioa trukatzeko sare sozialak.

Lehenik, informazioa aipatu dugu. Interneten dagoen informazioa neurritz kanpokoa da, eta garrantzitsua da iturburura joatea eta gaien arabeko aditu fidagarriei erreparatzea eta jarraitzea; alegia, informazioa iragaztea. Aukeratutako informazio hori gurera ekarrita egokitu beharko dugu, eta beskeen esku jarri, beraiei ere interesgarria irudituko zaielakoan eta beraien-gandik jasoko dugun feedbacka motibagarria izango zaigulako. Lehen esan bezala, denok gara informazio-iturri eta -bilatzaile.

Bigarrenik, edukiak kudeatzeko behar dugun tresneria. Arlo hau oso zabala da, baina tresna batzuk orokorrak dira, edonorentzat ere baliagarriak, eta

¹ <http://about.me/>

beste batzuk espezifikagoak. Kideekin harremanak izateko eta informazioa trukatzeko sare sozialak ere hemen kokatzen ditugu.

7.1 NIAren garapena sare sozialen bidez. Lan kolatiborako tresnak

Hona ekarriko ditugun tresnak guk lantaldeetan erabili ditugunak dira, eta, betiere, etekin ona atera dakiokelakoan. Gure helburua ez da dauden tresnen taxonomia bat egitea, baizik eta guk zeintzuk eta zertarako erabili ditugun azaltzea, eta, nolabait, aurreko lanetan aurkeztutakoa osatzea (Aizpitarte eta Guillén, 2008).

7.1.1 Blogak

Larak (2013) horrela dio blogen gaurkotasunaz: “Bloga da sarean sakanatutako gure sentimendu, hitz eta azal digitalaren bizkarrezurra.”

NIA osatzeko orduan, funtsezkoa da bloga. Irakaslearen blogak lana antolatzen laguntzen du, nork bere lanari buruzko hausnarketa bideratzeko tresna egokia da, beste kide batzuekin materiala trukatzeko eta komunikazioa ahalbideratzeko gune aproposa.

Ikasleen blogak helburu eta erabilera askotarako izan daitezke, baina artikulua hau ez da zerrenda luze bat osatzeko lekua. Oraingoan, bloga erabiltzeko arrazoi batzuk baino ez ditugu aipatuko. Egokia da alde emozionala lantzeko: sentimenduak, sentsazioak edota iritziak azaltzeko. Ikasleari bere ikasketa-prozesuaz hausnarketa egiten laguntzen dio. Idazteko motibazioa izugarri handitzen da, ikasleak idatzi duena edozein pertsona irakurtzen baldin badu, eta ez bakarrik irakasleak edo ikaskideek. Irakurleak, post-a irakurtzeaz gain, erantzun ere egiten badio, benetako komunikazioa sortuko da, eta, orduan, hizkuntza erreala erabiltzeko aukera paregabea izango du. Ikasleak idazle-irakurle aktibo bihurtzeko bidean jarriko dira, blogen bidez erraz bidera baitaiteke interesak bultzatutako irakurketa eta idazketa.

Egun, inoiz baino errazagoa da blogak sortzea eta editatzea. Teknologia-aren eboluzioak ikaragarri erraztu du erabiltzailearen lana. Zerbitzua eta erraztasuna kontuan izanda, aipagarriena Blogger² iruditzen zaigu.

7.1.2 Twitter³

Twitterrek badu blogetik, sare sozialetik eta posta-zerbitzutik, eta hau guztia nahasian eta mikroan. 140 karaktere baino ezin dira idatzi, eta horrek eskatzen du ideiak argi izatea, baita sintesi-gaitasuna ere. Twitterreko erabiltzaileak oso profil desberdinekoak dira: egunerokoen berri ematen duten nerabeak, interes bereko kide bila dabiltzan profesionalak, ikasle, irakasle-jendea eta abar.

² <http://www.blogger.com>

³ <http://twitter.com/>

7.1.2.1 Twitterren erabilera didaktikoak

Irakasleen arlorako, bereziki Gómezek (2013) egindakoari errepara geniezaioke; hona, berriz, Twitter ikasleekin erabiltzeko ideia batzuk ekarri, eta ikusiko dugu, hizkuntza testuinguru informal eta errealean praktikatzeko aukera izanez gero, handitu egingo dela irakurtzeko eta idazteko motibazioa.

- Irakasleak edo ikasleek ikasgelan lantzen ari direnarekin lotutako link edo lotura interesgarriak jar daitezke.
- Irakurri duten liburu bati buruzko iritzia idatzi. Hau #liburuarenizena traola (hashtag) erabiliz egin daiteke. Horrela, elkarren ondoren ordenatuta agertuko dira iritzi guztiak.
- Ikasle bakoitzak gustuko duen euskal idazle, kirolari, musikari edo miresten duen bati jarraitu eta idatzi diezaioke.
- Bilatu euskal kulturarekin zerikusia duen informazioa, eta linkatu edo lotu.
- Egitura zehatz baten lanketa modu interaktiboan.
- Mikroipuinak bakarka edo taldeka idatzi, #ipuinarenizena traola erabiliz.

7.1.3 Google +⁴

Zirkuluen ideia da Google Plusek daukan berezitasunik garrantzitsuenetarikoa bat. Nork bere harremanak zirkulutan antola ditzake: lagunak, lankideak, familia eta abar. Bakoitzak nahi dituen zirkuluak sor ditzake, eta, ondoren, ki-deak sartu zirkuluetan. Pertsona bera zirkulu batean baino gehiagotan sar daiteke, eta, horrela, informazio-mota bat baino gehiago partituko dugu berarekin. Argitaratzen den sarrera bakoitzeko, aukeratu daiteke zeintzuek ikusten duten. Esate baterako, ikastalde bakoitza zirkulu batean sar daiteke, eta ikasleek bakarrik bere gelakoena ikusiko dute.

Ondorengo pasarteetan, Google+ ek dituen aplikazio interesgarri batzuk aztertuko ditugu.

7.1.4 Google Sites⁵

Googlek site-k irekitzeko laguntza⁶ ematen du. Hainbat gauzatarako balia daiteke gune hau. Besteak beste, kudeatzeko irakasleen arteko lanak zein irakasle-ikasleen artekoak.

Lantaldeak elkartu, eta site-an elkarrekin komunikatu, materialak jaso eta partitu. Leiho bat ireki, eta site-tik bertatik konektatuko dugu nahi dugun sarearekin, adibidez Twitterrekin. Horrela, lantzen ari garen gaiaz Twitterren zer dioten irakur dezakegu, site-tik atera gabe. Geroago ikusiko dugun Diigo-rekin ere lotu daiteke, eta bertara ekarri site-ko atarian Diigo-n gaiaz dagoe-na ere. Horretarako, badaude instrukzioak⁷.

⁴ <http://plus.google.com>

⁵ <http://sites.google.com/>

⁶ <http://sites.google.com/site/webscolaborativas/ayuda-general>

⁷ <http://sites.google.com/site/webscolaborativas/twitter-widget>

Ikastalde bakoitzari bere proiektua egiteko site-a ireki diezaiokegu. Beraien lana bukatzen dutenean, denen helbideak jarri eta besteen site-ak ikusiko dituzte.

7.1.5 Google Drive⁸

Googlek fitxategiak hodeian gorde eta modu kolaboratiboan lan egin eta partekatzeko zerbitzua da. Taldean sortu, partitu eta osatu ditzakegu testu-artxiboak, inkestak, kalkulu-orriak. Dokumentuok Hodeian gordetzen direnez, edozein tokitatik sar daitezke taldekideak eta editatu. Talde-lana bi modutara egin daiteke: modu sinkronikoan eta diakronikoan.

Pantailaren eskuinean, zutabe bat dugu iruzkinak idazteko. Taldekideak sartzen direnean, besteen iruzkinak irakurri, eta ikusiko dute zein den egiteke dagoen lana, ordura artekoa egiten aritu direnen eztabaidak, adostutakoa, zalantzak eta abar. Elkarrekin egiten ari diren lana denek zuzendu dezakete, eta zuzenketa-markak ikusgai egongo dira.

Egiten diren lan guztiak karpetatan gorde daitezke, gure Google Driven, eta portfolioa osatu. Taldekako lana egiteko diseinatuta baldin badago ere, bakarkako lanak ere egiteko aukera dago.

Aproposa da taldeka materiala partitzeko: bideoak, audioak, Interneteko estekak, testuak eta behar den guztia.

7.1.6 Hangouts⁹

Komunikaziorako tresna ona da. Lantaldea ordu batean geratu, eta idatziz edo bideoz komunikatzea ahalbidetzen du. Helburua da Site-an edo beste edozein tokitan lanean dihardutenek komunikatzea.

7.1.7 Diigo¹⁰


Taldeak sor daitezke modu publikoan edo pribatuan, estekak edo beraien intereseko informazioa partekatzeko. Horretarako, batek sortuko du taldea, eta besteei lanerako baimenak eman. Taldekideek jasoko duten informazio guztia etiketa baten azpian gordeko da. Etiketa hau proiektuaren izena izaten da.

Diigo ikasleekin erabili daiteke, adibidez, taldeka egin behar duten lanean lagunduko dien bibliografia osatzeko. Taldekideek igoko dituzte url-ak, eta erreferentzia bakoitzeko iruzkinak egiteko aukera dago. Horrela, taldekideek informazio osatua lortuko dute.

⁸ <http://drive.google.com>

⁹ <http://www.google.es/hangouts/>

¹⁰ <https://www.diigo.com>



Diigo tresna erabilgarria izan daiteke irakaslearen NIA osatzeko. Bertan, beste irakasle batzuekin taldea egin, eta, interes bertsuak daudenean, gai beraren inguruan informazioa jaso eta partekatzeko.

8. Bukatzeko

Artikuluaren ikusi dugunez, gure nortasun digitala eratzten ari da; kasu gehienetan, gu konturatu gabe, guk horren berri izan gabe. Ikusi dugunez, gure nortasuna ez dugu guk bakarrik eraikitzen, osatzen. Sarean parte hartzen dugunean, hortxe geratzen da gure argazkia, gure “abatarrak”, gure abatarra gure argazkia denean. Eta ez hori bakarrik, gure nortasuna besteek gutaz esaten dutenaz ere osatzen da, eta ez bakarrik guk geure buruari buruz adierazten dugunaz. Zerbait idazten dugunean, erantzunak jasotzen ditugu, iritziak, kritikak, beste batzuek idazten dute guk esandakoez... Beraz, gure nortasuna ez da guk egin dugunaren ondorio zuzena, baizik eta gure parte hartzearen ondorioz sortzen dena, sortzen den guztia. Artikuluaren hasieran egindako proposamenari kasu egin badiozue eta zuen izenak gozatu, agian ustekaberen bat hartuko zenuten, ikusita zeuen buruaz dagoen informazioa, batzuetan oso zehatza eta beste batzuetan nahiko nahasia.

Gaur egun, gure nortasun digitala analogikoa baino indartsuagoa da. Mundu osora zabaltzen da berehala. Neurri batean, geure esku dago guk geuk erabakitzea zer-nolako irudia eman nahi dugun eta modu kontzientean guk bideratzea irudi horren zatirik handiena, behintzat.

Bide horretan, zuen gaitasun digitalak autoebaluatzea komeni da abiapuntu gisa. Horretarako, bilatzailean izenpea edo autoebaluazio-parrila egoki bat

aukeratu, eta horrela zehatzago jakingo duzue zer egoeratan zaudeten mundu digitalarekiko. Gai honi buruz Alvarez (2013) irakaslearen dokumentu interesgarri bat dago. Hori ikusi ondoren, hausnartu zure gaitasun digitalari buruz, eta gaitasun horrek zenbat laguntzen dien zure ikasleei gaitasun komunikatiboaren bidean, gaur egun gaitasun digitala gaitasun komunikatiboaren parte garrantzitsua baita. Ikasleen gaitasun digitalak gaitasun komunikatiboa garatzen lagundu behar die, eta gure prestakuntza ezin bestekoa izango da arlo horretan, orain-geroari begira.

Bibliografia

- Aizpitarate, A. eta Guillén, N. (2008). Web semantikoa eta sare sozialak hizkuntza ikas-irakaskuntzan. *Hizpide*, 67, 51-64.
- Alonso, J. (2011). Identidad y reputación digital. *Cuadernos de comunicación Evoca*, 5, 5-10. Hemendik berreskuratua: <http://www.evocaimagen.com/cuadernos/cuadernos5.pdf>
- Alvarez, D. (2013). Rúbrica Evaluación de Competencias Digitales. Hemendik berreskuratua: <http://es.slideshare.net/balhisay/rubrica-competencias-digitales>
- Castañeda, L. eta Adell, J. (ed.). (2013). *Entornos personales de aprendizaje: claves para el ecosistema educativo en red*. Alcoy: Marfil. Hemendik berreskuratua <http://www.um.es/ple/libro/>
- Entornos personales de aprendizaje / social learning (d.g.). Hemendik berreskuratua: <http://tallerple.wordpress.com/1-ple/>
- Escudero, F. (d. g.). Crea tu tarjeta de presentación virtual en about.me con tus perfiles sociales. Hemendik berreskuratua: <http://redessociales.about.com/od/aplicacionesysitioswebsociales/ss/Crea-Una-Tarjeta-De-Presentacion-Virtual-En-About-Me-Con-Tus-Perfiles-Sociales.htm>
- Gómez, G. (2013). Web 2.0 tresnak, hausnarketa-praktika irekiak eta ikaskuntza sare-pertsonalak: Twitter, blogak eta Google Drive irakasleen topaketetan. *Hizpide*, 80, 10-33.
- Lara, T. (2013, urriaren 10a). Los blogs y su evolución hoy: reconstrucción del cuerpo digital. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://tiscar.com/2013/11/10/los-blogs-y-su-evolucion-cuerpo-digital/>
- López García, J.C. (2011, abuztuaren 1a). Usos de Twitter en educación. *Eduteka*. Hemendik berreskuratua: <http://www.eduteka.org/TwitterEducacion.php>
- Muñoz, F. (2012, martxoaren 30a). Experiencias didácticas con Twitter. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://www.educacontic.es/blog/experiencias-didacticas-con-twitter>
- Prensky, M. (2001). Digital natives, digital immigrants. *On the Horizon*, 9. Hemendik berreskuratua: <http://www.marcprensky.com/writing/Prensky%20-%20Digital%20Natives,%20Digital%20Immigrants%20-%20Part1.pdf>
- Vigotsky, L. S. (1981). *Pensamiento y lenguaje: teoría del desarrollo cultural de las funciones psicológicas*. Buenos Aires: La Pleyade.
- White, D. eta Le Cornu, A. (2011) Visitors and Residents: A new typology for online engagement. *First Monday*, 16 (9). Hemendik berreskuratua: <http://firstmonday.org/article/view/3171/3049>